

Krakena: kondairatik errealitatera?

Ion Garin Barrio

Biologiako ikaslea EHUn

Europako iparraldeko nabigazioaren hastapenetatik ezagutzen dira itsas munstro ikaragarri baten inguruko kondaira eta istorioak. Itsas munstro ikaragarri hark, bere garro handien bitartez, ontziak eta marinelak itsas hondora eraman zitzaizkela esaten zen.

ESKANDINAVIAKO KOSTAKO HERRI GEHIENETAN, txipiroi erraldoiari *kraken* esaten zaio. Marinelen arabera, arrainez elikatzen zen munstro hark, 'atsedenaldi' luzeak egiten zituen berriz ere arrainak harrapatu aurretik; horietan, gorotzaz erakartzen zituen arrainak.




ARTXIBOKI

Hasieran animalia hura marinelen irudimenaren emaitza hutsa zela uste bazen ere, kondairazko munstro haren atzean benetako animalia bat ezkutatzen zela konturatu ziren gero.

Izan ere, hainbat hondartzatan txipiroi erraldoiaren zenbait gorpuzkin aurkitzen hasi zirenean, naturalistak ohartu ziren itsas hondoran tamaina ikaragarriko bizidun bat bizi zela. Azkenik, 1856an Johannes Japetus Smith Steenstrup-ek izen generiko bat ipini zien itsas hondoko bizidun haiei: *Architeuthis*. Izen horren bidez, txipiroi erraldoiaren existentzia onartu zuen zientziak.

1861eko azaroaren 17an, *Alecton* gerra-ontzi frantseseko marinelek txipiroi erraldoi batekin egin zuten topo Tenerifeko irlaren ipar-ekialdean, Anaga kostaren aurrealdean. Hala ere, ontziko marinelen ahaleginak ez ziren nahikoa izan txipiroia ontziratzeko, eta txipiroia bi zatitan ebakita geratu zen.

Ordurako, beraz, argi zegoen txipiroi erraldoia benetakoa zela. Hala ere, ordutik hona animalia honek ez du mitoaren magia galdu; beharbada, *Architeuthis*-a gure begiekin ikusi ezin izateak are irrika handiagoz bilatzea ekarri du.



I. GARIN

Hamar garroko zefalopodoa da; zortzi garro 'motz' eta bi luze ditu.

Jules Verne bera liluratuta geratu zen animalia honekin, eta bere nobelarik ezagunenetako bateko pasarte batean zefalopodo erraldoiaren eta *Nautilus* urpekuntziaren arteko borroka bat azaldu zuen. Liburua argitaratu zenerako, animalia hori bazela ez zen zalantzan jartzen; izan ere 1856an aurkitutako 11,5 zentimetroko mokoak orduko zalantza guztiak baztertu zituen.

Kaxalotearekin borrokan

Txipiroi erraldoia ornogabe bizidun handiena bada ere, itsasoko zenbait ugaztunen harrapakin garrantzitsuenetakoa da. Oso tamaina handiko animalia den arren, igerilari kaskarra dela uste da, oso hegats txikiak dituelako.

Horren mugimendu eskasak dituen animalia bat oso harrapakin erraza da baraila indartsuak dituzten ugaztunenetzat; ondorioz, itsas hondo ilunean kaxalotearen eta txipiroi erraldoiaren arteko borroka ikaragarriak gertatzen direla uste da. Gertakari ikusgarri horren seinale dira kaxalotearen barailaren inguruan antzemandako uztai-formako markak. Gainera, zenbait kaxaloteraren sabeletan txipiroi erraldoiaren mokoak aurkitu izan dira, horiek ezin baitira digeritu.

Kaxalotearen barailaren inguruan ikusi izan diren uztai-itxurako markak txipiroi erraldoiak egindakoak dira. Izan

ere, txipiroi erraldoiak bere bi garro luzeenetan dituen bentosak erabiltzen ditu babes-mekanismo gisa, kaxalotearen erasoei aurre egiteko.

“kaxalotearen eta txipiroi erraldoiaren artean borroka ikaragarriak gertatzen direla uste da”

Dena den, animalia honi buruz ezer gutxi dakite adituek, ezta zenbat espeziek osatzen duten horren genero kosmopolita ere.



Asturiasko kostaldea; han hainbat txipiroi erraldoi aurkitu dira hilda.

I. GARIN

20 metroko luzera izan lezakeen animalia hau 1.000 kilogramoko pisua izatera irits daiteke. Alde abisalean bizi den arren, organo optikorik edo begirik handienak dituen animalia da: 50 zentimetroko diametroa izan dezakete, saskibaloiko baloi batek adinakoa. 15 zentimetroko mokoak du, garroen bidez lortzen dituen bakailao edo bestelako arrain zein krustazeeo txikiak apurtzeko. Hamar garroko zefalopodo honek zortzi garro 'motz' eta 10 metro baino gehiagoko bi garro luze ditu.

Txipiroi erraldoiaren larrua arre-gorrixka da, baina, kromatoforo izeneko zelula pigmentatzaileen bidez, kolorea alda dezake. Teutologo gehienek ustean, animalia bakartia da txipiroi erraldoia, eta soilik ugaltzeko elkartzen da espezie bereko bizidunekin. Gainera, bere bizitzaren zatirik handiena alde abisalean ematen du, 500 eta 1.500 metro bitarteko sakoneran.

Geruza afotikoan bizi izatearen ondorioz zefalopodoetan horren erabilia den tinta-zorroak ez du funtzionaliterik; horrexegatik, tamaina oso txikiko tinta-zorroa du. Oso denbora gutxi bizi da, bost urterekin hil egiten da, baina animalien erreinuko hazkunde-tasarik handiena du; ustez, txipiroi erraldoia egunean zentimetro bat hazten da.

Arrak, hektokotilo izeneko ugalkoaren bitartez, esperma sartzen dio emeari. Emea bere heriotza kontrola-

Asturiasko kostan hilda aurkitutako txipiroi erraldoietako bat.



I. GABRIN

tzeko gai da, eta azken momentura arte itxaroten du larbak askatzeko. Izan ere, ugalketaren ostean arra zein emea hil egiten dira.

Non dago?

Egun txipiroi erraldoiaren inguruko berriek sona handia lortu badute ere, oso zientzialari gutxi abiatzen da haren bila ur sakon eta ilunetan barrena. Espediziorik ezagunenak eta fidagarrienak hiru dira, diru-laguntza eta tresneria aurreratu ugari zutenak. Hiru espedizioetatik bitan bi zientzialari ingelesak egiten dute lan, anglosaxoiek betidanik izan duten aurkikun-

“sona handia lortu badu ere, oso zientzialari gutxi abiatzen da txipiroi erraldoiaren bila ur sakon eta ilunetan barrena”

tzetarako grinak bultzatuta; hirugarren espedizio garrantzitsua, berriz, espainiarrek osatzen dute, eta Kraken proiektua izenpean lan egiten dute txipiroi erraldoiaren atzetik.

Hala ere, ahaleginik ikusgarriena Smithsonian institutuko Clyde Roper zientzialariak egin zuen 1999ko udaran, Kaikourako leizean, Zeelanda Berrian. Txipiroi erraldoiaren harrapari garrantzitsuenak dela jakinda, kaxaloteen bizkaraldean kamera berezi batzuk (critter cam kamerak) ipini zituen txipiroi erraldoiaren irudiak lortuko zituelakoan. Baina kaxaloteak jabetu egin ziren soinean zerbait zeukatela, eta apurtu egin zituzten kamerak. Horretarako, beste kaxaloteen gorputzak erabili zituzten batzuek, eta beste kaxalote batek laginketarako erabilitako itsasontzia bera erabili zuen, zientzialari guztiak amorrutz eta sinetsi ezinik begira zituela.



ARTXIBOKOA

Handia bezain ezezaguna

Beste hainbat gauzarekin gertatzen den bezala, gauza gehiago dakizkigu milioika kilometrora dagoen edozein planetaz gure Lur planetaz baino, eta ahanzi egiten zaigu gure planetan leku asko ditugula oraindik ezagutzeko. Lur planetaren % 70 urez estalita dago, eta ur horren guztiaren oso zati txikia ikertu da. Ozeano eta itsasoetako ura iluntzen doan heinean, ezjakintasuna handitzen doa; beraz, esan daiteke eguzki-izpiak uretan desagertu ahala, gure ezjakintasuna maila berean edo handiagoan handitzen dela.

Zientziaren ikuspuntutik, ezjakintasun hori larritzat jo daiteke. Planetaren zati handi baten inguruan proiektu eta ikerketa sakonagoak egin eta proposatzeaz gain, erakundeek diru-laguntza handiagoak eman beharko lituzkete, itsas hondan zer dagoen jakiteak aurrerapauso handia ekarriko lukeelako.

Hain zuzen ere, ezagutu eta ikertu ez dugun ingurune horretako harribitxietako bat da txipiroi erraldoia, *Architeuthis* generoko zefalopodoa, munduko ornogaberik handiena. Hala ere, oraindik ez du inork animalia honen irudirik lortu.

Beste saiakerarik ere izan zen. Steve O'Shea zientzialariak ospe gutxiagoko proiektu bat jarri zuen martxan, hark ere Zeelanda Berrian. Txipiroi erraldoiak bere larbak normalean alde fotikoan uzten dituela jakinda, larba horiek eskuratzen saiatu zen biologoa, aztertu ahal izateko. Aldez aurretik oso proiektu egokia bazirudien ere, alde praktikotik proiektua bideraezina zen. Ustezko larbak bereganatu zituen, bai, baina berehala hil zitzaizkion guztiak. Animalia horiek bizi diren ingurunean, egundoko presioa jasaten dute, eta kondizio horiek simulatzea oso neke-tsua eta garestia da.



Itsas hondo sakona aztertzeko itsaspekoa.

Azkenik, duela gutxi, Kraken proiektua jarri zen abian Gijondik 25 milia ipar-ekialdera dagoen Carrandiko kalan. 2001eko irailean, laginketa-lekuak eta -teknikak aztertu zituzten, eta urtebete geroago irudiak jasotzen hasi ziren. Horretarako, hiru kamera ipini zituzten buia batzuei loturik, itsasoan irudizko hiruki bat osatuz. Kamerak itsas hondoraino jaitsi zituzten eta grabatutako irudiak aztertu. Nahiz eta lortutako informazioa oso garrantzitsua izan, ez zuten txipiroi erraldoiaren arrastorik ere aurkitu.


Bilaketa ez da amaitu

Orain arte egindako saioen emaitzak oso egokiak izan ez badira ere, itsas hondoko zefalopodo honen irudia lortzeko asmoa ez da bertan behera utzi.

Hurrengo udarako, inoiz egin den kanpainarik handiena prestatzen ari dira Zeelanda Berriko kostetan. Saiakera horretarako, bi zientzialari anglosaxoik bat egin dute animaliairen lehengo irudiak lortzeko. Feromonak

erabiliko dituzte txipiroia erakartzeko, eta, ondoren, saiakera horretarako berriaz prestatutako kameren bitartez, itsas hondolari buruzko informazio gehiago jasotzen saiatuko dira.

Txipiroi erraldoiaren istorioak XIX. mendean anglosaxoiek eginiko espedizioak edo abenturak ekartzen dizkit gogora. Garai hartako erregeek eta buruzagiek abenturazale, naturazale, botanikari eta arkeologoak bidaltzen zituzten leku edo gauza berrien bila: garai hartakoak dira, besteak beste, Babiloniako pasabide sekretuaren aurkikuntza, Egipto aldeko indusketa bereziak, Antilletako espedizio abenturazaleak, eta kondairazko animalien inguruko bidaiak.

Izan ere, beti esan izan da anglosaxoik abenturazaleak direla. Edozein leku edo gauza aurkitzeko grina izan dute, eta ez dute amorerik emango itsas hondo ikaragarriko animalia liluragarriaren bat bizirik aurkitu edo filmatu arte. Ordura arte, usteekin eta kostaldean hondartutako aleekin konformatu beharko dugu. 

“txipiroia bizirik ikusteko, inoiz egin den kanpainarik handiena prestatzen ari dira Zeelanda Berriko kostetan”



Txipiroi arruntaren biologiatik abiatuta ondorioztatu dituzte txipiroi erraldoiaren bizimoduari buruzko hainbat datu. Nolanahi ere, hipotesi hutsak dira.